


TXIKIAK HANDI

EUSKARA

Nahia, Olaia, Elene, Argider

HIZKUNTZAREN TAMAINA

Unitate honetan hizkuntzen
elaniztasunaz eta tamainaz
arrituko gara.



MUDUKO ELEANIZTASUNA ETA HIZKUNTZA KOPURUA

ZENBAT HIZKUNTZA DAUDE MUNDUAN?

Munduan 7.000 hizkuntza inguru daude.

ZENBAT HIZTUN DITU EUSKARAK?

Miloi 1 hiztun inguru ditu euskarak.

Euskara munduan hiztun gehien dituzten hizkuntzen %10ean dago. Hau da, 0tik 10 era doan eskala batean, euskara, 9. postuan kokatzen da hiztun kopuruari dagokionez.

· MUNDUAN HIZTUN KOPURU GEHIEN DITUZTEN HIZKUNTZAK

Txinera: 1.300 miloi hiztun

Ingelesa: 500 miloi hiztun baino gutxiago

Gaztelania: 407 miloi hiztun

· CALVET BAROMETROA

Calvet Barometroak hizkuntzen indarra neurtzen du 11 irizpideren baitan. Honela, 500.000 hiztun baino gehiago dituzten 563 hizkuntza aztertu ditu, eta euskara 51. postuan dago.

48	ukrainien ▶	3.793
49	galicien ▶	3.77
50	macédonien ▶	3.763
51	basque ▶	3.747
52	letton ▶	3.743
53	télougou ▶	3.736
54	gallois ▶	3.721

IRIZPIDEAK:

Emaitza honetara iristeko hauek dira Calvetek kontuan hartu dituen irizpideak hizkuntzak neurtzerako garaian: hiztun kopurua, entropia, zenbaten lehen hizkuntza den, ofizialtasuna, hizkuntza horretatik itzulitako liburuak, hizkuntzara horretara itzulitako liburuak, Literatura Nobel sariak, Wikipediako artikulak, Giza-garapenaren indizea ugalkortasun-tasa eta Interneteko barneratze-tasa.



GURE HIZKUNTZAREN OSASUNA, UNESCO

Unescok arriskuan dauden hizkuntzen osasuna neurtzen du.


Euskararen bizitasun-maila zaugarria da. Beste batzuekin alderatuta ongi dago, halere, arriskuan da.

Arriskuan ez egoteko eremu guztietan euskaraz gehiago hitz egin beharko litzateke.

Bizitasun-maila	Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa
Arriskurik gabe	Belaunaldi guztiek hitz egiten dute hizkuntza eta belaunez belauneko transmisioak ez du etenik. Ez da atlas-ean sartzen.
Zaugarria	Haur gehienek hitz egiten dute hizkuntza, baina erabilera zenbait eremutara mugatuta egon daiteke (familia girora, adibidez).
Arriskuan	Haurrek jada ez dute ikasten ama-hizkuntza gisa.
Arrisku nabarmena	Aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideek bakarrik hitz egiten dute hizkuntza. Gurasoen balaunaldiekoek, ulertu badezakete ere, ez dute beraien artean erabiltzen, ezta seme-alabekin ere.
Arrisku larria	Hiztun bakarrak, aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideak dira, baina gutzitan eta oso modu partzialean darabilte hizkuntza.
Desagertua	Ez da hiztunik geratzen. Atlasak, 1950. urtetik aurrera desagertutako hizkuntzen erreferentzia dakar.

GURE HERRIKO INKESTAK

Kalera atera
ginen
herritarrei
euskararen
tamainaren
inguruan
galdetzeko.
Hona hemen
beraien
erantzun eta
hausnarketak:



ONDORIOAK

- Hizkuntza bat handia edo txikia den esatea erlatiboa da.
- Eskala desberdinak erabili behar dira hizkuntza baten tamaina neurtzeko
- Hizkuntzaren tamaina ez dator bat hizkuntza baten osasunarekin.
- Euskaldunok euskara txiki ikusten dugu.
- Euskara tamainari dagokionez, uste baino egoera hobean dago. Osasunari dagokionez, aldiz, arrisku egoeran dauden hizkuntzen artean kokatzen da.